



GIPUZKOAKO BERDINTASUN TEKNIKARIEN LANGUNEAREN MEMORIA

2016-2019



Aurkibidea

1. Testuingurua	3
2. 2016-2019 bitartean burututako lana	4
2.1. Genero mainstreaming lan prozesua	4
2.2. Genero berdintasunaren aldeko antolakuntza aldaketa	5
2.3. Emakumeen Etxeak eta Jabetzerako Guneak:	6
2.4. Emakume etorkinekin jabetze prozesuak abiatzeko estrategiak:	6
2.5. Indarkeria matxistaren gaia lantzeko Gazteria eta Berdintasun teknikarien arteko Langunea	7
2.6. Hezkidetza	7
2.7. Jai eredu parekideak	7
2.8. Genero ikuspegia giza baliabideen politikan	8
2.9. Laburbilduz	9
3. 2019ko lanaren ebaluazioa	10
3.1. Hobetzeko elementuak	10
3.2. Indarguneak	10
4. Ibilbidearen balorazioa	11



1. TESTUINGURUA

Gipuzkoako Teknikarien Langunearen jatorria 2012.urtean kokatzen da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren II. Berdintasun Planaren elaborazio prozesuaren baitan hain zuzen. Prozesu horretan zehar lurraldeko berdintasun teknikariekin egindako 6 lan saioen ondorioz, elkarlanerako gune egonkor baten beharra nabarmendu zen.

Horrela, 2013ko otsailean Langunearen baitan egindako lan bilera baten ostean, 3 lan talde sortzeko erabakia hartu zen eta udalerrri bakoitzeko teknikariei interes gehien pizten zion lantaldean parte hartzeko aukera eman zitzaion. Azkenik, ondoko lantaldeak eratu ziren:

- *Indarkeria matxista*: Pasaia, Oñati, Donostia, Bergara, Arrasate, Urola-Garaia, Azpeitia, Azkoitia, Eibar, Ordizia, Usurbil.
- *Mainstreaming*: Ordizia, Azpeitia, Bergara, Oñati, Zarautz, Tolosa, Errearteria eta Pasaia, Irun, Zumaia, Hernani.
- *Jabetzea eta Emakumeen Partehartzea*: Arrasate, Hernani, Pasaia, Eibar, Urola-Garaia, Azpeitia, Beasain.

Lantaldeetan antolatutako lehen lan fase hau, 2015.urtean bukatu zen, **2016an fase berri** bati hasiera emanaz. Orduz geroztik, urte hasieran planifikaziorako mintegi espezifiko bat burutu izan da teknikariekin, non urte horretan landu nahi diren gaiak zehaztu izan diren. **Planifikazioak urteka** landu eta gauzatu dira, lan ildoen ordeztan lanerako gai zehatzak finkatuz eta hauek lantzeko moduak hasieratik definituz.

Txosten honetan, 2016-2019 urteen bitartean egindako lanaren memoria jasotzen da.



2. 2016-2019 BITARTEAN BURUTUTAKO LANA

2016 eta 2019 urte bitartean berdintasun teknikarien Langunearen baitan gai eta eduki ezberdinak landu dira. Lanketa horiek egiteko zenbaitetan lan prozesu luzeago eta egonkorragoak garatu dira eduki eta helburuek horrela eskatzen zutelako eta beste zenbaitetan aldiz, prozesu laburragoak edota mintegi puntualak egin dira.

Hurrengo lerroetan egindako lan prozesu eta mintegiak zehazten dira, hauen inguruko oinarritzko informazioa zehaztuz. Informazio hau osatzeko beharra izanez gero, mintegi guztien aktak erabil daitezke.

2.1. Genero mainstreaming lan prozesua

Gipuzkoako Berdintasun Teknikarien Languneari dagokionez, mainstreaming lan prozesua finkatutako lan fase ezberdinetan garatu da, burututako lan prozesu egonkorrena izan delarik.

Mainstreaming estrategia Gipuzkoako udaletan txertatzeko helburuarekin, Foru Aldundiak ikasketa-hausnarketa-ekintzan oinarritutako lan prozesua jarri zuen martxan 2014.urtean. 2016.urtean genero mainstreaming estrategia lurraldeko udaletan txertatzeko helburuarekin lan fase berri bat ireki zen (2014.urtean hasitako prozesu honek bi lan fase izan baitzituen 2014-2016 urte bitartean), aurreko lanari jarraipena eta hedapena emanaz.

Prozesu honetan landutako eduki eta lan faseei dagokionez, ondoko zerrendan laburbiltzen dira:

1. Mainstreaming strategiaren inplementaziorako **oinarriak sortu**: oinarritzko marko kontzeptuala, udalen egoeraren diagnostikoa eta estrategia garatu ahal izateko eman lehen beharreko pausoen definizioa. Lanketa honen emaitzak, oinarritzko dokumentu baten bildu ziren.
2. Estrategia garatzeko **baldintzak sortu**: Lan egituren sorrerarako gakoak landu dira (batzorde teknikoa eta politikoa), udalek sinatu beharreko konpromisoak zehaztuz eta beharrezkoak diren lan tresnak elkarrekin garatuz.
3. Genero ikuspegia **prozedura amankomunetan** txertatzeko lanketa burutu zen ostean: informazioa sortu eta zabaldu, kontratu eta diru laguntzetan berdintasun klausulak txertatu, arautegian genero inpaktua ebaluatzeko lanketarako oinarriak landu, organo kolegiatuen sorrerarako genero irizpideak adostu, udal aurrekontuetan genero ikuspegia txertatu.
4. **Udal politiketan genero ikuspegia** txertatzeko egindako lanari dagokionez 3 lan eremutan sakontzeko lana burutu da: giza baliabideen politika, pertsonengan eragin zuzena duten politiken lanketa (kultura, gizarte



zerbitzuak...), pertsonengan zeharkako eragina duten politiken lanketa (hirigintza...).

5. Lan tresnen lanketa prozesu guztian zehar burututako zeregina izan da: informazioa jasotzeko, aztertzeko eta sistematizatzeko tresnak eta landutako irizpideak jasotzen dituzten dokumentu ezberdinak.

6. Udal mailako instrukzio ezberdinak landu dira, epe ertainean berdintasunerako udal ordenantza bat garatzeko oinarriak zehaztuz.

Lortutako **emaitzei** dagokionez, landutako dokumentuak anitzak eta ugariak izan direla aipatu beharra dago (Mainstreaming lan prozesuaren memoria propioan eta bertan atxekitutako eranskinetan ikus daitekeen bezala). Baina prozesuak eragindako produktuez gain, emaitzen balioa parte hartu duten udaletako teknikariek lortutako jakintza eta zilegitasun mailan, eta ondorioz, berdintasun politikek hartutako bultzadan dago.

Partehartzaileak (13 udalerrri): Azpeitia, Donostia, Zumaia, Tolosa, Ordizia, Pasaia, Hernani, Errenteria, Oñati, Urola Garaia, Astigarraga, Usurbil eta Oiartzungo Udaletako teknikariak.

Egindako **mintegiak:**

Urtea	2016	2017	2018
Mintegi kopurua	6 mintegi	9 mintegi	8 mintegi



Likadiren irudia



2.2. Genero berdintasunaren aldeko antolakuntza aldaketa

Mainstreaming estrategiaren lanketa osatzeko helburuarekin eta honen inplementazio prozesuan ematen diren zailtasunak aztertzeko, Garapenerako Lankidetzaren alorrean oinarria duen “Genero Berdintasunaren Aldeko Antolakuntza Aldaketa” **lan metodologiaren** inguruko 3 mintegi burutu ziren. Saio hauetan partehartzeko gonbitea, Berdinsarea osatzen zuten teknikariei ere luzatu zitzairen.

Urtea	2017
Mintegi kopurua	3 mintegi

Partehartzaileak: Emakunde, Eudel, Donostia, Urola Garaia, Oñati, Hernani, Astigarraga, Ordizia, Beasain, Tolosa, Azpeitia, Gasteiz.

2.3. Emakumeen Etxeak eta Jabetzerako Guneak:

Emakumeen Etxeen eta orokorrean *Jabetzerako Guneen* inguruko **talde hausnarketa** bideratzeko lan saio bakarra burutu zen, espazio eta zerbitzu hauek izan beharreko ezaugarri eta bete beharreko helburuak zehaztu eta hauek betetzeko zailtasunak identifikatzeko. Aurretiaz galdetegi bat bidali zitzairen teknikariei beraien herrietako egoera ezagutzeko eta mintegian oinarritzko informaziotik abiatzeko.

Urtea	2017
Mintegi kopurua	1 mintegi

Partehartzaileak: Tolosa, Donostia, Zumaia, Andoain, Beasain, Arrasate, Pasaia, Astigarraga, Usurbil eta Oiartzun.

2.4. Emakume etorkinekin jabetze prozesuak abiatzeko estrategiak:

Berdintasun Arloetatik **emakume etorkinekin** lan egiteko estrategia eta egiteko moduetan sakontzeko mintegi bat burutu zen, **jabetze prozesuak** dituzten behar zehaztetara moldatzeko.

Urtea	2017
Mintegi kopurua	1 mintegi

Partehartzaileak: Tolosa, Beasain, Hernani, Arrasate, Usurbil, Astigarraga, Pasaia, Errenteria, Oñati, Zumaia, Donostia, Ordizia.



2.5. Indarkeria matxistaren gaia lantzeko Gazteria eta Berdintasun teknikarien arteko Langunea

2018.urtean, *Aurre!* planaren inplementazio prozesuaren baitan, tokiko berdintasun eta gazteria teknikariek elkarlanean, indarkeria matxistaren inguruan edukiak zehazteko lan prozesu bat burutu zen. 2019an, 2018an egindako 3 mintegiei jarraipena emateko, **hautzaroen pairatzen den sexu indarkeriari aurre egiteko marko feminista** lantzeko prozesua jarri zen abian. Horrela 4 mintegi burutu dira 2019an.

Urtea	2018	2019
Mintegi kopurua	3 mintegi	4 mintegi

Partehartzaileak (Berdintasun arloei dagozkienak): Azpeitia, Hernani, Elgoibar, Eibar, Astigarraga, Pasaia, Oñati, Zumaia, Donostia, Ordizia, Urola Garaia.

Partehartzaileak (Gazteria arloei dagozkienak): Arrasate, Azpeitia, Bergara, Hernani, Elgoibar, Ordizia, Zumaia, Tolosa.

2.6. Hezkidetza

Udaletako berdintasun arloek hezkidetza arloan hezkuntza formalean betetzen duten papera oinarri hartuta eta berez **eremu horren eskumena duen Autonomi Administrazioak burutzen duen lana ezagutzeko** helburuarekin mintegi bat antolatu zen 2018an.

Urtea	2018
Mintegi kopurua	1 mintegi

Partehartzaileak: Arrasate, Errenteria, Hernani, Oiartzun, Oñati, Ordizia, Tolosa, Usurbil, Zumaia.

2.7. Jai eredu parekideak

Lurralde mailan jaien inguruan egindako lanketak (Aldundiak aurretiaz egindako lanketa eta zenbait herrietan burututako hausnarketa prozesuek) zenbait udalerriek jai ereduetan parekidetasuna txertatzeko eta eman daitezkeen diskriminazioei aurre egiteko tresnak jasotzeko eskaera burutu zuten. Horrela, Aldundiak teknikarien **Langunean** eta **Berdinbidean** zerbitzuan lanean ari ziren udalerrietako teknikariak hausnarketa eta ikasketarako gune honetan biltzeko proposamena luzatu zuen.



Berdintasun teknikarien Languneko partaideez gain, hauen herrietako kultur teknikariei mintegietan parte hartzeko aukera eskaini zitzaien. Berdinbidean zerbitzuan parte hartzen zuten herriei zegokionez, erreferente tekniko eta politikoez gain, jaien antolaketan parte hartzen zuten gainontzeko eragileei ere luzatu zitzaien gonbitea.

Urtea	2018
Mintegi kopurua	2 mintegi

Partehartzaileak (22 udalerrri eta 3 mankomunitate): Zizurkil, Berastegi, Errezil, **Arrasate, Donostia**, Saiaz, Aizarnazabal, **Bergara**, Bidania-Goiaz, Legorreta, Mutriku, **Oiartzun, Zumaia, Ordizia, Hernani, Urola-Garaia**, Zaldibia, **Usurbil**, Villabona, Getaria, Alegia, Bideberri, Asteasu, **Andoain**, Anoeta.

(*Beltzean dauden udaletatik etorri ziren berdintasun teknikariak)

2.8. Genero ikuspegia giza baliabideen politikan

Berdintasun teknikarien eskaerei erantzuteko eta aldi berean, mainstreaming estrategian sakontzeko, giza baliabideen politikan genero ikuspegia txertatzearen gakoak landu ziren mintegi baten.

Urtea	2019
Mintegi kopurua	1 mintegi

Partehartzaileak: Hernani, Andoain, Ordizia, Urola-Garaia, Tolosa, Zumaia, Eibar, Tolosa, Astigarraga, Usurbil.



2.9. Laburbilduz


Ondoren aurkezten diren mintegiez gain, berdintasun teknikarien Langunearen fase honetako **4 urteetan planifikazio mintegiak** burutu dira lurraldeko teknikariek, bertan urteko plangintzaren edukiak zehaztu direlarik. Aldi berean, egindako lanaren jarraipenerako **2017ko bukaeran ebaluazio mintegia** burutu zen.

Urtea	2016	2017	2018	2019
Mintegi kopurua	6 mintegi	14 mintegi	14 mintegi	5 mintegi

Mintegietan izandako partehartzeari dagokionez, **batz beste 10 herrietako teknikariek** parte hartu dute mintegietan. Gipuzkoako lurraldean Berdintasun Politikak garatzeko egitura egonkorrak dituzten 17 herri eta mankomunitate bat daudela jakinik, Languneak izandako partehartzea espazioari eskaintzen zaion zilegitasunaren erakuslea da.

3. 2019KO LANAREN EBALUAZIOA

Atal honetan, 2019an burututako lanaren inguruan berdintasun teknikariek egindako balorazioa aurkezten da. Balorazio hau, lurraldeko **8 teknikaririk** erantzundako galdetegia oinarri hartuta landu da.



3.1. Hobetzeko elementuak

- *Gai asko lantzeko eta baliabide gutxi tokiko mailan.*
- *Konpromiso maila altua eta jarraipena emateko zailtasunak udaletan.*
- *Landutako gaien eremu praktikoa indartzeko beharra.*
- *Herrien arteko ezberdintasunak kontutan hartzeko eta hauetara moldatzeko beharra.*
- *Aldundiaren konpromiso irmoa agertzea Langunea mantendu eta indartzeko, etenik egin gabe eta Idazkaritza Teknikoaren figura mantenduz.*
- *Teknikarien partehartzea mantentzeko konpromisoa nolabait zehaztea.*
- *Udal mailan Langunea ezagutzera emateko Aldundiaren laguntza izatea, egiten den lanari zilegitasun gehiago emateko.*

3.2. Indarguneak

- *Gai berriak lantzeko gaitasuna.*
- *Sarea sortzeko eskaintzen duen aukera: politikak koordinatzeko, hausnarketak partekatzeko eta irizpideak homogeneizatzeko.*
- *Daukan izaera praktikoa eta lurralde mailan koordinatzeko eskaintzen duen aukera.*
- *Teknikarien jabetze prozesuak sustatzeko aukera*



4. 4. IBILBIDEAREN BALORAZIOA

Amaitzeko, Gipuzkoako berdintasun teknikarien Langunearen 4 urte hauetako esperientziatik eratorritako ondorio nagusiak aurkezten dira:

- Lurralde mailan berdintasun politikak garatzeko kohesiorako ezinbesteko tresna bihurtu da Langunea, **lurralde mailako koordinazioa** erraztuz eta **teknikarien arteko sarea** eratuz.
- Herrien artean **elkartruckerako eta jakintzak partekatzeko espazioa** izateaz gain, **Berdintasunerako Organoarekin harreman zuzena eta hurbilekoa** gauzatzeko espazioa bihurtu da, lurralde mailan berdintasun politiken inguruko jakintza eta koherentzia handituz.
- Langunearen ibilbidea **lurraldetik haratago** erreferente bilakatu da, burututako lan prozesuen inguruko interesa erakunde ezberdinetatik partekatu baita azken urteetan.
- Landutako edukien **izaera praktikoa** lehenesten baldin badute teknikariek, **hausnarketak eta eztabaidak partekatzeko gune** izateak ere indarra ematen dio egiten den lanari, batez ere, irizpideak bateratzerakoan eta norabideak finkatzerakoan.
- Planteatzen diren lan prozesuek **herrietako teknikarien aukera errealetara mugatu behar** dira ezinbestez, hauetan partehartzeak herri mailan egin beharreko lana areagotzen duelako eta markatutako erritmoak jarraitzea zailtzen duelako.
- Mainstreaming lan ildoan planteatzen den formazio-hausnarketa-ekintza prozesuaren izaera eraldatzailea (tokiko mailan duen eragin zuzena dela eta) duen **etengabeko akonpainamenduan** dauka oinarri nagusia.
- Beste arloetako teknikariek elkarlanean burututako lan prozesuek (Gazteria Arloko teknikariek egindako lan prozesua) ikuspegi berriak irekitzeaz gain, **herri mailan zeharkakotasuna garatzeko praktika zehatzak** eskaintzen dituzte.
- **Langunea udaletan ezagutzera emateak** (Aldundiaren partetik) egiten den lanari bultzada emateko estrategia egokia litzateke, partehartzeko gonbitea maila politikoan egiteak eta landuko diren edukien aurkezpena burutzeak ondoren egin beharreko lan teknikoaren oinarria sendotuko lukelako.